

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3512

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Gobernu Irekia / Open Government arloko profesionalak espezializatu eta prestatzeko beken deialdia egiten duena.

Uztailaren 26ko 173/2011 Dekretuak –gerora, maiatzaren 20ko 78/2014 Dekretuak aldatua– arautzen ditu Gobernu Irekia / Open Government arloko profesionalak espezializatzeko bekak.

173/2011 Dekretuaren 2. artikulua adierazten du beken deialdia aldian-aldian egingo dela, Lehendakaritzako idazkari nagusiaren ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan zehaztuko dira deialdiaren xedea, deiturako beken kopurua eta mota, hautaketa-probak, beken diru-kopurua eta ordaintzeko modua, baloratzeko erabiliko diren azpi-irizpideak, horien haztapena eta, beharrezkoa bada, egin beharreko probak, bai eta eskaerak aurkezteko tokia eta epea eta eskabide-eredua ere.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen helburua da Gobernu Irekiaren arloan profesionalak espezializatu eta prestatzeko beken deialdia egitea, 2014. urterako.

2. artikulua.– Deitutako beken kopurua eta mota.

Lau dira deitutako bekak:

- Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko bi beka.
- Kazetaritza digitalaren arloan bi beka.

3. artikulua.– Diru-zenbatekoa eta ordainketa.

1.– Lau beka horietako bakoitzaren zenbatekoa 14.280 eurokoa izango da. Zenbateko horri dagokion atxikipen fiskala egingo zaio, egindako jardueraren arabera.

2.– Bekak 12 hilabeterako izango dira, eta honela ordainduko dira:

- Zenbateko guztiaren % 20 bekaren hasieran ordainduko da.
- 2014ko abendaren 31a baino lehen beste % 30 ordainduko da.
- Gainerako % 50a 2015ean ordainduko da, beka amaitzean.

4. artikulua.– Eskabideen izapideak.

1.– Prozedura honen izapide guztiak eskatzeko, kontsultatzeko eta egiteko, interesdunek baliabide elektronikoak erabil ditzakete.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak modu presentzialean zein elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke:

<https://euskadi.net/diruguntza/-/2014/gobernu-irekia-bekak/>

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak —hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak— ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapidetak egiteko bide bera erabiltzera; edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea. Eskabidearen osteko izapidetak, bide elektronikoz, honako webgune honetan egin daitezke: <http://www.euskadi.net/misgestionones>

5. artikulua.– Non, nola eta noiz aurkeztu eskabideak.

1.– Eskabideak eta uztailaren 26ko 173/2011 Dekretuaren 8.3 artikuluan zehazten diren agiriak Gobernu Irekiaren Zuzendaritzara bidali behar dira; hau da, Lehendakaritzara, Nafarroa kalea 2 – 01007 Vitoria-Gasteiz (Araba). Honako modu hauetan aurkez daitezke:

a) Aurrez aurre, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean Zerbitzua) edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan, eskabide normalizatu baten bidez, eta atal guztiak behar bezala beteta. Eskabide-eredua I. eranskinean ikus daiteke, baita Euskadi.net egoitza elektronikoa ere, aurreko artikuluan aipatutako URL helbidean.

b) Elektronikoki, Euskadi.net egoitza elektronikoa bidez, aurreko artikuluan adierazitako URL helbidean.

2.– Deitutako beken hainbat modalitateetan interesatutako pertsonak horietako bakoitzeko eskabide bat aurkeztu behar dute.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

4.– Beken eskatzaileek beren eskabideen bidez berariaz baimendu dezakete uztailaren 26ko 173/2011 Dekretuaren 8.3 artikuluan aipatutako zenbait datu eta agiri organo kudeatzaileak lortu edo egiaztatzea, hala aurrez aurreko baliabideak nola baliabide elektronikoa erabiltzean. Baimen horrek ez ditu ezertan eragotziko Administrazio Publikoak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen ahalmenak.

6. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

Beken bi modalitateetan, hauek izango dira Hautaketa Batzordeko kideak:

1.– Batzordeko buru Luis Petrikorena jauna izango da, Gobernu Irekiko zuzendaria. Kargu hori hutsik badago, titularra ez badago edo gaixorik badago, edo legezko beste kausaren bat gertatzen bada, Iñaki Bernardo jauna izango da ordezkari, Komunikazioko zuzendaria.

2.– Bi batzordekide:

– Jon Olaizola Azkarate jauna, Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiko Gobernu Irekiaren Zuzendaritzarako komunikazio-arduraduna. Kargu hori hutsik badago, titularra ez badago edo gaixorik badago, edo legezko beste kausaren bat gertatzen bada, Jasone Vicandi andrea izango da ordezkari, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Komunikazio eta Zabalkundeko arduraduna.

– Josu Oses jauna, Arabako Unibertsitate Ospitaleko komunikazio burua. Kargu hori hutsik badago, titularra ez badago edo gaixorik badago, edo legezko beste kausaren bat gertatzen bada, Lurdes Ubetagoyena andrea izango da ordezeko, Donostia Unibertsitate Ospitaleko komunikazio burua.

3.– Eta batzordeko idazkaria Concha Dorronsoro andrea izango da, Lehendakaritzako Komunikazio Zuzendaritzako teknikaria; hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du botorik eman. Kargu hori hutsik badago, titularra ez badago edo gaixorik badago, edo legezko beste kausaren bat gertatzen bada, Jon Olaizola Azkarate jauna izango da ordezeko, Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiko Gobernu Irekiaren Zuzendaritzarako komunikazio arduraduna.

7. artikulua.– Baloraziorako azpi-irizpideak eta probak.

A) Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko beka:

1.– Gobernu irekiari buruz eta teknologia berri aplikatuei buruz behar adinako ezagutza izatea (partaidetza-prozesuak, gardentasuna eta Open Data) (gehienez 40 puntu).

Ezagutza horiek idatzizko bi probaren bidez ebaluatuko dira: bat, teorikoa; eta bestea, praktikoa.

a) Egin beharreko proba teorikoak (30 puntu, gehienez ere) 30 minutu iraungo du, eta ondorengo modu honetan ebaluatuko den galdera-sorta bat izango du:

– Herritarren parte-hartzeari buruzko ezagutza eta kritika-gaitasuna: 4 galderako sorta bat, galderako 3 puntukoa; beraz, gehienez 12 puntu lor daitezke.

– Gardentasunari buruzko ezagutza eta kritika-gaitasuna: 3 galderako sorta bat, galderako 3 puntukoa; beraz, gehienez 9 puntu lor daitezke.

– Open Datari buruzko ezagutza eta kritika-gaitasuna: 3 galderako sorta bat, galderako 3 puntukoa; beraz, gehienez 9 puntu lor daitezke.

b) Proba praktikoak (10 puntu, gehienez ere) 30 minutu iraungo du, eta bekadungaiari honi buruzko ariketa praktikoa planteatuko zaio:

– Gobernu irekiaren arloko nazioarteko jardunbide onei buruzko konparazio-azterlan lan-fluxua (gehienez 10 puntu).

2.– Ingurune digitalen kudeaketari buruzko ezagutzak (gehienez 20 puntu).

30 minutu iraungo duen idatzizko proba teoriko baten bidez ebaluatuko da, eta proba horrek ondorengo modu honetan ebaluatuko den galdera-sorta bat izango du:

– Gizarte-sareei eta horiek gobernuen komunikazioetan duten aplikazioari buruzko ezagutza teorikoak: 5 galderako sorta bat, galderako 2 puntukoa; beraz, gehienez 10 puntu lor daitezke.

– Gizarte-sareetako profil korporatiboen kudeaketaren inguruko ezagutzak: 5 galderako sorta bat, galderako 2 puntukoa; beraz, gehienez 10 puntu lor daitezke.

3.– Eskatzailearen ibilbide akademikoa eta haren profil akademikoa bekaren helburuari egokitzea (gehienez 10 puntu).

a) Ibilbide akademikoagatik gehienez ere 5 puntu emango dira, unibertsitate-ikasketen azken bi urteetako batez besteko nota kontuan hartuta. Nota hori dokumentu bidez egiaztatuta beharko da. Honela emango dira puntuak:

– Puntu 1, batez besteko nota 5 eta 5,99 bitartekoa bada.

– 2 puntu, batez besteko nota 6 eta 6,99 bitartekoa bada.

– 3 puntu, batez besteko nota 7 eta 7,99 bitartekoa bada.

– 4 puntu, batez besteko nota 8 eta 8,99 bitartekoa bada.

– 5 puntu, batez besteko nota 9 eta 10 bitartekoa bada.

b) Komunikazio digitalarekin, gizarte-sareekin edo antzekoren batekin lotutako graduondoko ikastaro edo masterrik izanez gero, gehienez ere 5 puntu emango dira, modu honetan:

– 2 puntu, 400 orduko iraupena izan duen ikastaro bakoitzeko.

– Puntu 1, 60 orduko iraupena izan duen ikastaro bakoitzeko.

4.– Lanbide-ibilbidea (gehienez 10 puntu).

Lanbide-ibilbidea dela-eta gehienez 10 puntu lor daitezke, eta modu honetan ebaluatuko da:

– Komunikazio digitalean, erredakzio digitalean, herritarren parte-hartzean edo antzekoetan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,8 puntu.

– Bekaren gaiarekin lotutako arloetan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,2 puntu.

5.– Euskararen ezagutza (gehienez 12 puntu).

Egiaztageria aurkeztuz egiaztatuko da:

– C1: 6 puntu.

– C2: 12 puntu.

6.– Ingelesaren ezagutza (gehienez 8 puntu).

Egiaztageria aurkeztuz egiaztatuko da:

– B1: puntu 1.

– B2: 2 puntu.

– C1: 4 puntu.

– C2: 8 puntu.

B) Kazetaritza digitaleko beka:

1.– Datuen kazetaritzari buruzko ezagutzak eta aplikazio praktikoak (gehienez 50 puntu).

Ezagutza horiek idatzizko bi probaren bidez ebaluatuko dira: bat, teorikoa; eta bestea, praktikoa.

a) Proba teorikoak (gehienez 20 puntu) ordu bete iraungo du, eta bertan, beka dugaiari idatzizko galdera-sorta bat egingo zaio, arlo hauei buruz bere kazetaritza-ezagutzak egiaztatzen:

– Informazioaren egungo egoera (gehienez 10 puntu): EAEko, Espainiako eta nazioarteko politikan, ekonomian, kulturean eta gizartean gaurkotatzen diren gaiak behar bezala ezagutzea. 20 galderako idatzizko proba baten bidez ebaluatuko da. Galdera bakoitzak 0,5 balioko du, eta beraz, ondorengo puntu hauek lortu ahal izango dira:

– Gehienez ere 4 puntu, EAEko politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean gaurkotasuna duten gaiak ezagutzeagatik.

– Gehienez ere 3 puntu, Espainiako politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean gaurkotasuna duten gaiak ezagutzeagatik.

– Gehienez 3 puntu, nazioarteko politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean gaurkotasuna duten gaiak ezagutzeagatik.

– Interneterako informazioaren hautaketa, bilketa eta tratamendua (gehienez 10 puntu): teknologia berrien bidez informazio bat landu eta banatzeko kazetaritza-irizpideak eta -estiloak behar bezala ezagutzea. 10 galderako idatzizko proba baten bidez ebaluatuko da. Galdera bakoitzak puntu 1 balioko du, eta honela ebaluatuko da:

– Gehienez ere 5 puntu, Interneten eremuko edukien hautaketarako ezagutza eta irizpideengatik.

– Gehienez ere 5 puntu, Interneten eremuko kazetaritza-estiloen erabilerarako ezagutza eta irizpideengatik.

b) Proba praktikoak (gehienez 30 puntu) 30 minutu iraungo du, eta bertan, datu-sorta batetik informazioa hautatzeko eta albisteak sortzeko zer-nolako ezagutzak dituen frogatu beharko du bekadungaiak, ariketa praktiko baten bidez: ariketa, besteak beste, honako egiteko hauek osatuko dute: datuen hautaketa, idazketa, datuen irudikapen infografikoaren zirriborroa eta eduki horiek Interneten eta gizarte-sareetan banatzeko estrategiaren planteamendua. Ariketa hori gehienez 30 punturekin baloratuko da, eta banaketa honela egingo da:

– Gehienez ere 5 puntu, informazioaren hautaketagatik.

– Gehienez ere 5 puntu, kazetaritza-testuak egiteagatik.

– Gehienez ere 5 puntu, infografiaren zirriborroagatik.

– Gehienez ere 10 puntu, eduki hori Interneten eta sareetan banatzeko strategiagatik.

2.– Inguru digitalen kudeaketari buruzko ezagutzak (gehienez 20 puntu).

Idatzizko proba teoriko baten bidez ebaluatuko da, eta 30 minutu iraungo du. Proba horrek galdera-sorta bat izango du, eta modu honetan puntuatuko dira galderak:

a) Gizarte-sareen eta horiek gobernuen komunikazioetan duten aplikazioari buruzko ezagutza teorikoak: 5 galderako sorta bat, galderako 2 puntukoa; beraz, gehienez 10 puntu lor daitezke.

b) Gizarte-sareetan profil korporatiboak kudeatzeari buruzko ezagutzak: 5 galderako sorta bat, galderako 2 puntu; beraz, gehienez 10 puntu lor daitezke.

3.– Eskatzailearen ibilbide akademikoa eta haren profil akademikoa bekaren helburuari egokitzea (gehienez 10 puntu).

a) Ibilbide akademikoagatik gehienez ere 3 puntu emango dira, unibertsitate-ikasketen azken bi urteetako batez besteko nota kontuan hartuta. Nota hori dokumentu bidez egiaztatuta beharko da. Honela emango dira puntuak:

– 0,5 puntu, bataz besteko nota 5 eta 5,99 bitartekoa bada.

– Puntu 1, bataz besteko nota 6 eta 6,99 bitartekoa bada.

– 1,5 puntu, bataz besteko nota 7 eta 7,99 bitartekoa bada.

– 2 puntu, bataz besteko nota 8 eta 8,99 bitartekoa bada.

– 3 puntu, bataz besteko nota 9 eta 10 bitartekoa bada.

b) Komunikazio digitalarekin, gizarte-sareekin edo antzekoekin lotutako graduondoko ikastaro edo masterrik izanez gero, gehienez ere 2 puntu emango dira, modu honetan:

– Puntu 1, 400 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko.

– 0,5 puntu, 60 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko.

4.– Lanbide-ibilbidea (gehienez 5 puntu).

Lanbide-ibilbidea dela-eta gehienez 5 puntu lor daitezke, eta modu honetan ebaluatuko da:

– Komunikazio digitalean, erredakzio digitalean, herritarren parte-hartzean edo antzekoetan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,8 puntu.

– Bekaren gaiarekin lotutako arloetan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,2 puntu.

5.– Euskararen ezagutza (gehienez 12 puntu).

Egiaztagiria aurkeztuz egiaztatuko da:

– C1: 6 puntu.

– C2: 12 puntu.

6.– Ingelesaren ezagutza (gehienez 8 puntu).

Egiaztagiria aurkeztuz egiaztatuko da:

– B1: 2 puntu.

– B2: 3 puntu.

– C1: 5 puntu.

– C2: 8 puntu.

8. artikulua.– Esleipena eta argitalpena.

1.– Deialdiaren ebazpena Lehendakarietzako Idazkaritza Nagusiak emango du, Hautaketa Batzordeak proposatuta.

2.– Ebazpen horrek administrazio-bidea agortuko du, eta I. eranskinean beken esleipendunen zerrenda izango du. Banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta www.euskadi.net webgunean ere argitaratuko da, guztiek izan dezaten horren berri.

3.– Esleipenaren ebazpenak II. eranskina ere izango du, eta bertan, esleitutako beken modalitate bakoitzerako bi ordezeko izendatuko dira. Ordezko horiek, arlo bakoitza eta ordezkotza-hurrenkera kontuan hartuta, lehentasuna izango dute bekadun izateko, ukoren bat edo beste edozein gora-behera gertatzen denean.

4.– Ebazpen hau dela-eta egindako eskabideak ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du,

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan eta uztailaren 173/2011 Dekretuan—gerora, maiatzaren 20ko 78/2014 Dekretuak aldatua— arautu ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoa aplikatuko da —azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori—.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Ebazpenaren aurka egiteko, berraztertze-errekurtsoa jar dakioko ebazpena eman duen organoari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere aurkez daiteke EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 30a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.

ERANSKINA

ESKABIDE ORRIA

GOBERNU IREKIA / OPEN GOVERNMENT ARLOAN PROFESIONALAK
ESPEZIALIZATZEKO ETA TREBATZEKO BEKAK

Jaun/andre hori, behean izenpetzen duen honek (abizenak eta izena):

.....
 NAN zk.:, (urtea).....(e)ko.....aren(e)an jaioa, helbidea duen herria:.....,kalean, PK:..... Probintzia:

.....ikasketa titulazioa duenak,

Lehendakaritzako idazkari nagusiak beka hauen deialdia egiteko emandako ebazpenaz baliatuz, honako hau

ADIERAZTEN DU:

– Ez duela helburu bererako beste laguntzarik jasotzen Administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuetatik.

– Aurretik ez duela eskuratu horrelako bekarik ez antzekorik Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

– Ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, berariaz aipatuta sexu-bereizkeriagatiko debekuak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

– Egiazkoak direla eskabidean eta hari erantsitako dokumentazioan jasotako datuak.

– Betetzen dituela diru-laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak.

BAIMENA ematen dio deialdi honen organo kudeatzailerik baliabide elektronikoak edo hala badagokio eskuragarri dauden baliabideak erabiliz honako alderdi hauek egiazta edota ziurta ditzan (X batekin markatu):

Nortasun datuak.

Bizilekuaren datuak.

Unibertsitate titulazio ofizialaren akreditazioa edo, hala badagokio, espainiar Estatuak homologatuarena.

Unibertsitatez kanpoko titulazio ofizialaren akreditazioa edo, hala badagokio, espainiar Estatuak homologatuarena.

– Deialdi honetan beka honetarako eman duen dokumentazioa:

- Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko beka.
- Kazetaritza digitalaren arloko beka.

INFORMAZIOA JASO DU datu pertsonalak babesteari buruz honako baldintza hauetan:

– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan –DBLOn– ezarritakoa betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskabide honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko Bekak izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia beka espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei.

– Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOn, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzara jo behar duzu: Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz.

– Administrazio publikoak aukera izango du emandako datuak erkatzeko eta egin beharreko egiaztatzeak egiteko diru-laguntzak behar bezala esleitze aldera.

ESKATZEN DU:

Jarraian aukeratutako arloan profesional espezializatzeko beka bat eman dakiola, idazki honekin batera doan eskabide orrian zehaztuko datuen arabera:

- Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko beka.
- Kazetaritza Digitalaren arloko beka.

(Tokia).....n, 2014ko.....aren.....(e)an.

Izpta.: _____

GOBERNU IREKIRAKO ZUZENDARITZA

CURRICULUM VITAE

Abizenak:
 Izena: NAN.: Jaioteguna:
 Helbidea:
 Herria: Probintzia:
 PK: Telefonoa:

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

Lizentziaduna zertan (zehaztu):
 Zentroa:
 Ikasketak hasi eta bukatu zituen egunak:
 Ziurtagiri akademikoko kalifikazioa:

EGINDAKO GRADUONDOKO IKASKETAK ETA MASTERRAK komunikazio digitalari, gizarte sareei edo antzekoei buruz. Banan banan deskribatu egindako ikasketa eta masterrak, egin berrienetik hasita

1.– Izenburua:

 Zentroa:
 Iraupena (ordutan):..... Lortutako kalifikazioa:

2.– Izenburua:

 Zentroa:
 Iraupena (ordutan):..... Lortutako kalifikazioa:

(Erantsi gehiago, beharrezkoa bada)

BESTELAKO IKASKETA EDO IKASTAROAK

Banan banan deskribatu egindako ikasketa edo ikastaroak, egin berrienetik hasita

1.– Izenburua:

 Zentroa:
 Iraupena (ordutan):..... Lortutako kalifikazioa:

2.– Izenburua:

 Zentroa:
 Iraupena (ordutan): Lortutako kalifikazioa:

LAN-ESPERIENTZIA

Banan banan zehaztu egindako lan garrantzitsuak, berrietik hasita

1.– Komunikazio digitalean, gizarte sareetan edo antzeko gaietan lan egindako hilabeteak:

Hasiera eguna: Amaiera eguna:

Lanbidea eta bete den kargua:

Eginkizun eta erantzukizun nagusiak:

Enpresaren edo enplegatzailearen izena:

Enpresaren edo enplegatzailearen helbidea:

Enpresa mota edo sektorea:

2.– Gaiarekin zerikusia duten bestelako arloetan lan egindako hilabeteak:

Hasiera eguna: Amaiera eguna:

Lanbidea eta bete den kargua:

Eginkizun eta erantzukizun nagusiak:

Enpresaren edo enplegatzailearen izena:

Enpresaren edo enplegatzailearen helbidea:

Enpresa mota edo sektorea:

(Erantsi gehiago, beharrezkoa bada)

EGINDAKO LAN ETA PROIEKTUAK

Banan banan deskribatu egindako lanak/proiektuak, egin berrietik hasita:

1.– Izenburua:

Non argiratua: Data:

2.– Izenburua:

Non argiratua: Data:

(Erantsi gehiago, beharrezkoa bada)

EGIAZTATUTAKO HIZKUNTZAK (A1, A2; B1, B2; C1, C2).

HIZKUNTZAMAILA

Euskara

Ingelesa

.....

INFORMAZIO GEHIAGO

.....
.....
.....